



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2008-04-19

VIURTEA 1.412.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## «Erantzunkizun penal eta politikoak» eskatuko ditu ezker abertzaleak

**TOLOSA** Voith-Gorostidi auzian ezker abertzaleak aurkeztu zuen eskaria tramitera onartu du Justizi Auzitegi Nagusiak

**UDALA** Baloraziorik ez duela egingo azaldu du, izan ere, «epaitegiek erabaki beharreko gauza bat da» 6



Julen Zelarain ere AAMren aurkako epaiketan auzipetuta dago. IMANOL GARCIA

## «Gu geu ere epaituak sentitzen gara», dio Villabonako AAMk

**VILLABONA** Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako epaiketa hasiko da laister eta Julen Zelarain da auzipetuetako bat; «errepresioaren ildoak definitzen dituztenak epaitu behar dira», dio 4

## Rojo anaiak txapeldun iraupen eskian 3

## Bihar egingen duten herri krosak logoa estreinatuko du

**LEITZA** 30. aldiz irtengo dira bihar korrikalariak; aurten beterranoek lau buelta emango dituzte 7

**1. ÑAÑARRI RALLY ESPRINTA**  
ALEGIA - ORENDAIN - ABALTZISKETA - AMEZKETA

**2008ko**  
**APIRILAREN 26AN**  
**EGIAZTAPENAK:**  
10:00ETATIK  
12:00ETARA

**LEKUA:**  
ALEGIAKO  
HERRI ESKOLAN

**IRTEERA:**  
15:00ETAN,  
ALEGIATIK

**ERREPIDEA**  
**MOZTEA:**  
14:00ETAN

**SARI BANAKETA:**  
AMEZKETAKO PLAZAN



**Arurako Ikastola**      **PRIMERAN PASATU GABE**

# Industrialdeetan gaikako hondakinen bilketa zerbitzu berria jarri dute martxan

**Gizartea** » Bestalde, Tolosaldeko Mankomunitatearen ustez 2007an hondakinen kudeaketa ona izan da.

## ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Mankomunitateak hondakinen gaikako bilketa zerbitzua jarri du martxan eskualdeko industrialdeetan.

Hiri-hondakinekin parekagarri diren industria-hondakinek gaika biltzeko zerbitzu berri hau eskualdeko industrialdeetan dauden enpresei zuzenduta dago.

Hiru ingurumen hezitzaile Tolosaldeko enpresak bisitatzen ari dira informazioa emateko eta hiri-hondakinekin parekagarri diren industria hondakinen gaikako bilketari lotutako beharrak bertatik bertara ezagutzeko, sektore horretan sortzen diren gainerako hondakinei buruzko zalantzak argitzezeko, eta hainbeste hondakin ez sortzeko eta birziklatzeko dituen abantailen berri emateko.

Zerbitzu berriak hondakin hauek bilduko ditu banan-bana. Kartoizko materiala, zura, eta hiri-hondakinekin parekagarri diren hondakinek, hau da, biltzeko or-

duan baimendutako kudeatzaile-rik behar ez duten hondakinek (hondar organikoak, bulegoen garbiketarako sortutako hondakinak...).

## Zerbitzuaren helburuak

Tolosaldeko Mankomunitateak, enpresei zuzendutako gaikako bilketa zerbitzuaren bidez, xede hauek ditu. Alde batetik, hiri-hondakinekin parekagarri diren hondakinek ondo kudeatzea. Baita, birzikla daitezkeen hondakin guztiak zerbitzu horretara bideratu eta ez zabortegira eramatea. Honez gain, banaka bildutako materialen birziklatze kopurua handitzea lortu nahi dute. Beste xedetakoa bat, industrialdeen itxura hobetzea da, eta zabortegi kontrolatu gabeak nahiz zabortegi txikiak saihestea. Azkenik, enpresei zuzendutako bilketa zerbitzua pixkanaka hobetzen joatea nahi dute, eta sortutako hondakinen gaikako bilketa sustatu.

## Zerbitzuaren ezaugarriak

Zerbitzua, papera, kartoia, zura eta industrialdeetan enpresetan sortzen diren gainerako hiri-hondakinek gaika eta atez atez biltzean datza. Horretarako, enpresa bakoitzarentzat edukiontzia jarri eta

gaur egun dauden edukiontzia komunak kenduko dira.

Tolosaldeko Mankomunitateak emandako edukiontzia enpresen barruan egongo dira bilketa eguna arte. Hondakin bakoitza astean bitan bilduko da. Edukiontzia hustu ondoren, enpresaren edo tailerren barruan gordeko dira burrengo bilketa arte. Bildutako paperezko, kartoizko eta zurezko hondakinek birziklatzera bidaliko dira eta gainerako hondakinek kontrolpeko zabortegian utziko dira.

## Edukiontzia berrerabiltzea

Industrialdeen hiri-hondakinekin parekagarri diren hondakinek atez atez biltzeko erabiliko diren edukiontzia gehienak eskualdeko etxetan sortutako hiri-hondakinek biltzeko duela gutxi arte kalean zeuden edukiontzia izango dira. Ontzi horiek, enpresei eman aurretik, aztertu eta egokitu egongo dira, erabiltzeko moduan dardela egiaztatzeko. Honenbestez, papera eta kartoia biltzeko, edukiontzia urdin berriak emango dira.

Zurezko hondakinek biltzeko ez da beharrezkoa izango edukiontzia erabiltzea. Horrelakotan, bilketa modu soltean egingo da.

## Zerbitzu mankomunatu

Hiri-hondakinekin parekagarri diren industria-hondakinek biltzeko zerbitzu honek eskualde osoan berriki mankomunatutako hiri-hondakinen bilketa zerbitzua osatzen du. Zerbitzu hau Tolosaldea Aldi Baterako Enpresa Elkarteari esleitu zaio.

## Iazko hondakinen kudeaketaren balantzea

2007an hiri-hondakin gehiago sortu ziren 2006an baino. Zehazki %1,8 gehiago. Tolosaldeko mankomunitatea osatzen duten udalerrietako biztanle bakoitzak 1,22 kilo hondakin sortu zituen egunetan, hau da, 444 kilo urtean. Hainbat gaikako bilketa lerroren ingeora nabarmenari esker, herritar bakoitzeko 114,7 kilo hondakin bildu ziren. Bestalde, zabortegira bideratutako hondakin kopuruak %1 murriztu dira aurreko urtearekin alderatuz gero. Hala eta guztiz ere, 19.234 tona hiri-hondakin eraman ziren zabortegira.

Iaz sortutako hiri-hondakinetatik %25,8 berreskuratu ziren eta, hau da, aurreko urtean baino %9,9 gehiago. Horrenbestez, sortutako hondakin-tasaren gainetik, birziklapen tasa handitzen ari da.

## Zenbakia

# 444

■ **Kilo.** Hondakin sortzen ditu batez beste Tolosaldeko bizilagun batek urtean.

## Literatur Astea ospatuko dute datorren astean Samaniego ikastetxean

### ERREDAKZIOA

Hilaren 23an Liburuaren Eguna da. Hori dela eta, Samaniego ikastetxean Literatur Astea antolatuta dute datorren egunetarako. Aurtengoa VII. edizioa izango da.

Aste osoan ipuin kontaketa izango dira ikasleentzat. Horretarako, hezkuntza komunitate guztia inplikatzeko da, eta ikasturte ikasturte handitzen ari da nabarmen.

Aurten Tolosako Haur Liburuetegiarekin lotura landu nahi izan dute bereziki. Honen adibide, bertako arduraduna den Susana Larrea gonbidatu dute irakurketa maratonia hasteko. Bestalde, 6. mailako elkarrizketa egingo diote.

Irakurriko dituzten testu gehienak Hezkuntza Sailak onartu dituen proiektu globalarekin lotuta dago. Honez gain, Kolonbiako eskola batekin senidetuta daudenez, lotura hori azaltzen duen ipuin bat landu dute bigarren zikloan. Azkenik, maratonia amaitu ondoren oparriak banatuko dituzte.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosaldea bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320



## Araujo eta Delibes de Castro omenduz

**GIZARTEA** » Tolosa-Naturaldia jardunaldien baitan, atzo, ekimen honekin lotura handia duten bi pertsona omendu nahi izan zituzten: Joakin Araujo eta Miguel Delibes de Castro. Atzo iluntzean, Udaltxean egindako omenaldian, Udaleko kideek eta jardunaldien zuzendari den Shole Mar-

tinek harrera egin zien lehendabizi. Ondoren ekitaldiko protagonistek hartu zuten hitza, eta ingurumenaren etorkizuneko erronkez mintzatu ziren, *Ingurumenaren etorkizuna gure esku* lelopean. Saioarean amaieran, herritarren galderei erantzuteko parada ere izan zuten. **E ZEIZEA**

# Rojo anaiak Espainiako txapelkunak iraupen eskian

**Eskia** » Bina urrezko domina lortu zituzten; Xabier Saizar tolosarrak ere hirugarren postua lortu zuen.



Rojo anaiak Candanchuko eski estazioan. HITZA

**ERREDAKZIOA**

Joan den astean, Pirineotako Candanchun, Iraupen eskiko Espainiako Txapelketak jokatu zituzte. Alpino Uzturreko eskialariek emaitza bikainak lortu zituzten: 4 urrezko domina Ioseba eta Imanol Rojok lortuak (bina bakoitzak) eta brontzezkoa Xabier Saizarrek. Erreleboetan, hirugarren postua lortu zuten.

Hilaren 8an, egitekoa zen eskialtoia (7,5 kilometro klasiko estiloan eta jarraian beste 7,5 kilometro skating eran) bertan behera gelditzen euriarengatik. Bihamonengan, skating proban, 10 kilometro, lehiatu ziren eta Ioseba Rojo lehengoa izan zen junior mailan eta Imanol bere anaia ere lehena izan zen kadete mailan.

Euriak beste egun bat atzeratzea behartu zuen, eta ostiralean klasiko estiloko proban, 10 kilometro, lehiatu ziren. «Gauetan botatako elur berriarengatik eskietan jarri beharreko argizaria asmatzea zaila bazen ere, egokiena aukeratu zuten eta bere sasoiari esker laster-

keta oso ona burutu zuten». Ioseba eta Imanol Rojo lehenak izan ziren euren kategoriatan eta Xabier Saizar, berriz, hirugarrena. Gainera, Ioseba Rojo saikapan absolutuan bigarren geratu zen, selekzioan dauden zenbait seniorren aurretik.

Larunbatean, errelebo proba izan zen eta Euskadiko taldean Maialen Lopez irundarra eta Ioseba eta Imanol Rojo tolosarrak lehiatu ziren hirugarren postua lortuz. Aipatu behar da, txapelketa astegunetan ospatzeagatik taldeko beste eskialariek ezin izan zute-

la parte hartu, eskola eta lana utzi ezin zutelako.

Aurtengo denboraldiari bukera bikaina eman diote beraz, Rojo anaiak. Aurretik, Europako kopako probetan eta Junior mailako Munduko txapelketan parte hartzeko aukera izan dute eta Marxa Beret proba jendetsuan irabazle izan ziren, Imanol 10 kilometrotan eta Ioseba 20 kilometrotan.

Orain, aste batzuetako atsedena hartuko dute, eta maiatzetik datorren denboraldia prestatzen hasiko dira Espainiako Selektzioako partaideak izaten jarraituko baitute.

# Zahartzaro duinaren aldekoak euren parte-hartzea defendatzen

**Gizarte** » Martxotik Gizarte Ongizateko Komisioko bileretan ari dira parte hartzen plataformako kideak.

baida arbuaiatuz». Hala, euren us-tez, «esku pribatuetan eroriko baldin bada ere, badago gutxieneko kalitateko zerbitzua bermatzeko aukera, eta horretan ari gara plataformako kideak».

**ERREDAKZIOA**

Zahartzaro duinaren aldeko plataformako kideek azaldu dutenez, udaletxeko Gizarte Ongizateko Komisioko bileretan ari dira parte hartzen martxoaz geroztik. Hain zuzen ere, komisio horretan hartuko diren erabakiek, baldintzatuko dituzte erresidentzi berriaren ezaugarriak.

Horregatik diote ezinbestekoa dela bilera hauetan egotea, «erdi gunean, publikoa eta kalitatez eskainiko zuten erresidentzi baten alde sinatu genuen 3.000 herritarren hitza ordezkatuko dutenen parte hartzea esan nahi baitu».

Plataformakoek adierazi duteenez, «Udal gobernua osatzen duten alderdi politikoei pribatua izatea nahi dute komisioa, beste gestio mota baten aukeraren ezta-

Zahartzaro duinaren aldeko plataformako kideek «erresidentziaren gestioan erabakiak hartzerakoan egoiliar, senide eta herritarren parte-hartzea ahalbidetuko duen juntaren beharra (Iurramendi egoitzaren moduan)» defendatzen dute. Halaber, «urrezko kaio-la batean bihurtu ez dadin, barenko eta kanpoko tolosarren elkarbitza erraztuko duen izaera duena (E uskal Herria plazako gerontologikoaren antzera) kafetegiarekin, jubilatuen elkarteak antolatzen dituen aktibitateentzako lokalak dituen...» izatea eskatzen dute.

Azkenik, «kontratatu beharreko langileen lan baldintzak, kopurua, espezialitateak eta gutxieneko ezaugarri batzuk eduki ditzaten (Euskaldunak), enpresaren esku bakarrik geratu ez dadin» defendatuko dute.

# Dendetako kontsumoa aurrezteko kanpaina

**Merkataritza** » Tolosaldea Garatzenek bultzatu du ekimena; Infotechnalia enpresa arduratuko da dendak aztertzeaz.

ren bigarren tailerra burutu berri dute. Orain beste gai bat jorratuko dute, telekomunikazioen hobetzea eta komertzioen energia kontsumoa.

Ekimen berri honekin komertzioetako baliabideei etekin hobe ateratzea eta kontsumoan aurretea lortu nahi dute. Tolosaldea Garatzenek bultzaturiko kanpaina da, eta doakoa izango da. Infotechnalia enpresa arduratuko da Alde Zaharra-Dendak elkarteko dendetako egoera aztertzeaz.

**ERREDAKZIOA**

Merkataritzan berrikuntzak bultzatzeko helburuz, Tolosaldeko Merkataritza Mahaia arduratuko da Alde Zaharra-Dendak elkartearen arreta bultzatzeko Plan Renova-

# Berazubin astelehenean hasiko dira kolektorearen obrek

**Azpiegiturak** » Eragina izango du trafikoa, Rekalde Almirantearen, Martin Jose Iraolan eta Berazubin.

21ean, Berazubi neta Rekalde Almirantea kalean.

Lan hauek trafikoa eragina izango dute Rekalde Almirantearen kalean, Martin Jose Iraola etorbidean eta Berazubin, horiek uhkituko dituztelako. 5 hilabete eta erdi inguruko iraupena izango dutela lanek adierazi dute Udaltetik.

Hala azaldu dutenez, obrak egin ahal, bata bestearen atzetik itxiko

dituzte kaleak. Dena den, oinezkoen eta ibilgailuen trafikoa erantzun ziteko ibai ondoko pasealekuan, Elcano kalearen zonaldean, dagoen kolektorera eramateko. Helburua da «saneamenduko sarea optimizatzea, zerbitzu hobea emateko».

**ERREDAKZIOA**

Oria eta Zelai ibaietako saneamenduko kolektorearen obrekin hasiko dira astelehenean, hilaren

**Eskertza**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Orain egun gutxi Azepeitan hil zen  
**JESUS BEOBIDE GALARZA**  
-Golian bego-

Haren emazteak, seme-alabek, bilobek, anai-arrebek eta gainerako ahaideek asko eskertzen dizute samin-agurra bidali zenutenei, baita bere hiletara etorri zineten guztiok ere.

**AZEPEITA**  
2008ko apirilaren 19a

## Larramendi bazkunaren hurrengo txangoa, Baztanera

### ERREDAKZIOA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, Euskal Herriaren Barrena egitasmoari dagokionez, 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduriko asteburuko txangoak antolatzen ditu. Iosu Zumetak, ekimenaren arduradunak, esan duenez, iazko ildoari jarraituz 2008rako zortzi txango prestatu dituzte, martxotik urrira bitartean, hilabete asteburu batez burutuko direnak. Hilabete honi dagokionez, hilaren 26an eta 27an, Baztanera joango dira.

Izena emateko epea etzi bukatzen da. *Baztan, Bidasoaren sorlekua* leloa duen txango horretan Nafarroako iparraldeko lurrak izango dira ikusgai, Elizondo, Arizkun, Amaiur, Doneztebe edo eta Donamaria bezelako herriak bisitatuz, Baztan eta Malerrekako haranean bildurik daudenak. Asteburuko irteeraren kostua 60 eurokoa da, garraioa, ostatua, mantenua eta sarreak bere gain hartzen dituelarik. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero 943 69 64 50 zenbakira deitu daiteke edo [txangoak@topagunea.com](mailto:txangoak@topagunea.com) helbide elektronikora idatzi.

## Oria elkarrekin antolatutako moda desfilea gaur egingo dute Gurea aretoan

### ERREDAKZIOA

Oria merkatarien elkarrekin antolatu duen moda desfilea gaur egingo dute, Gurea aretoan, 19:30ean. Sarrera doan izango da eta mokadutxo bat hartzeko aukeraz gain, produktu sorta baten zozketan parte hartzeko aukera izango da. Gurea aretoko ateak 19:00etan irekiko dituzte.

## ARAMBURU

Salgai (Akitza). Etxe handia lursailarekin. 4.000m<sup>2</sup>, guztiz eraberritua.  
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Soldadu kalean, sartzeko moduan.  
Salgai (Tolosa). Etxebizitza garajearekin, Trinkele auzoan.  
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Nagusia kalean, 1. Igoailuarekin sartzeko moduan eta beste eraberrituko eta igogailurik gabeko.  
Salgai (Ibarra). Lokala. Euskal Herria kalean.  
Salgai. Garajeak. San Frantzisko eta Amarozen (Tolosa) eta Idoiaigan (Ibarra).  
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Garajeak. San Frantzisko, Araba etorbidean eta Babxilerr Zaldibian.  
Alokatzeko (Ibarra).  
Pablioi industrialak. Leaburuko bidean.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**Villabona** » Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako epaiketa hasiko da laster; Julen Zelarain da auzipetuetako bat.

### IMANOL GARCIA

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) prentsaurrekoa egin du Julen Zelarain bilabonatarrari babesa emateko. Astelehenean AAM aurkako epaiketa hasten da Espainiako Auzitegi Nazionalan eta Zelarain da auzipetuetako bat. Prentsaurrekoan azaldu zenez, «gu geu ere epaituak sentitzen gara. Elkartasuneko eta errepresoaren salaketarako hamaika ekimenen partaide izan garelako eta aurrerantzean ere partaide izaten jarraitu nahi dugulako».

Prentsaurrekoan 25 lagun inguru bildu ziren eta Julen Zelarain bera ere bertan izan zen. Herriko euskal presoak ere gogoan izan zituzten beraien argazkiekin. AAMk azaldu zuenez, datorren astetik hasita epaitu nahi dutena «Estatuen biolentzia eta errepresoaren salaketa eta euskal preso nahiz erreprezialatu guztiekiko elkartasuna da».

### «Elkartasuna ez da delitua»

AAMren aurkako epaiketarekin, Frantziako eta Espainiako estatua «euskal gizartearen eta munduarean aurrean biluzten dituen» eta bere izaera «ez demokratikoa»



Prentsaurrekoan 25 lagun inguru bildu ziren. Julen Zelarain ere bertan izan zen. I. GARCIA

## Villabonako AAM: «Gu geu ere epaituak sentitzen gara»

begi bistako egiten duen «lekuko nagusia erditik kendu» nahi dutela salatzen dute.

Prentsaurrekoan bildu zirenek, AAMk egiten duen lana ez dela delitua esan zuten: «Dispersioa salatzea ez da delitua. Tortura salatzea ez da delitua. Errepresoa salatzea eta pertsonen eskubideak babestea ez da delitua. Elkartasuna ez da delitua. Preso, iheslari eta beraien senitartekoak lagundu eta babestea ez da delitua». Salaketak egitera eta elkartasuna adieraztera bul-

### » MOBILIZAZIOAK

- **Apirilak 25.** Mobilizazio eguna Euskal Herrian.
- **Maitzak 6.** Kultur mailako eragileen prentsaurrekoa.
- **Maitzak 8.** Eskualdeko manifestazioa Tolosan.

- **Maiatzak 10.** Mendi martxa Uzturrera. Bertan ekitaldia egingo da.
- **Maiatzak 17.** Azken ekitaldia izango da: Manifestazio nazionala Bilbon.

tzatzen duen «salbuespen egoera, eskubide urraketak, tortura ahalbidez duen tresneria...» dira delituetak, azaldu dute.

AAMren aurkako epaiketa sala-

tzeko hainbat mobilizazio eta ekintza antolatu dituzte. Eskualdean ere egingo dira. Euskal Herriko gizarte guztiari ekitaldi haue-  
tan parte hartzea deitu diete.

## «Errepresoaren ildoak definitzen dituztenak dira gaizkileak eta epaitu behar direnak»

**JULEN ZELARAIN** » AAMren aurkako epaiketan auzipetua

**Villabona** » Ez du «inongo zalantzarik» zigortuak izango direnari buruz; Auzitegi Nazionalari ez diote zilegitasuna onartzen.

### I. GARCIA

Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako epaiketa hasiko da etzi. Julen Zelarain auzi horretan (Villabona, 1967) auzipetuetako bat da.

### Zer animorekin zaude epaiketaren aurrean?

Bi sentsazio ditut. Alde batetik, animatuta auzi honek planteatu nahi dituen helburu politikoei aurre egiteko. Bestalde, sentsazioa eta konbintzioa dugu auzi hau antzerki hutsa dela, ibilbide errepre-  
sibo bati mozorro judicial bat jarri nahi diotela, aldeaz aurretik erabakiak hartuta daudenean eta erabakia gainera zigortzearena izango denean. Aurreko sumarioek argi eta garbi adierazi dute hori.

**Argi duzue, beraz, aurkako epaia izango duzuela?**

Ez dugu inongo zalantzarik. Ildo errepre-  
sibo hau gobernu espainolak martxan jarri zuenean zein helburu zituen oso garbi zeukan eta egun ere bultzatzen ari da norabide horretan. Ez du inongo zentzurik izango ildo horretan erregulatasuna planteatzearena. Bere helburua AAM kriminalizatea da, Euskal Herriko kaleetatik desagertu dadin.

### Nola planteatu behar duzue epaiketa?

Bizitaba nagusi izango dituzte. Lehenengo adagari dugula gure burua defendatzeko tarte txikiaren ere ez dugula izango, bereziki Auzitegi Nazionala bera Estatuaren errepre-  
sio horretan lehen lerroan dagoelako. Bigarrenari dagokionez, beraien helburua AAM epaitzea bada, guk ez diogu onartzen inongo zilegitasunik epaitegi horri guri epaitzeko eta gure jarraera gehiago izango da beraien epaitzea, hau da, salatzea urte guzti hauetan Gobernu espainol ezberdinek zer mota-tako baliabide errepre-  
sibo jarri duten martxan gure herriaren aurka.



I. GARCIA

### Herriko AAMren babesa jaso duzu.

Eguna inguratzen den heinean, agertzen diren elkartasun eta mai-tasun adierazpenak gero eta ugari-  
riagoak dira eta hori benetan es-  
kertzekoa da. Egia da horiek her-  
rietatik jasotzen ditugula eta ez  
instituzio handietatik. Bereziki  
EAJri buruz hitz egiten ari naiz eta  
gogor kritikatzan dut: ildo errepre-  
sibo honen, gure auziaren eta kri-

minalizazio dinamikaren ardura-  
dun nagusienetarikoa bat delako.  
Egun ildo honek jarraitzen badu  
PSOEn ustetan emankorra dela-  
ko da, baina azkenean erabilgarri-  
tasuna ematen ari zaiona EAJ da,  
bai instituzioetan ez dagozkion  
karguak hartzen dituenen edo  
Ertzaintza bidaltzen duenean ma-  
nifestazioak debekatzea edo au-  
zian ikusiko dugun bezala 36 ur-  
te zain Fiskaltzaren lekuko bezala  
ariko direnean.

### Zer iruditzen zaizu leporatzen zaizkizun delituetan?

Erabat salagarria dela guri hainbat delitu leporatzea. Gauza batean arrazoi dute: AAMren ildoen ideo-  
logoak bai direla gaizkileak eta zi-  
gortuak izan beharko lukete. Ideo-  
logoak, hain justu, Gobenu espai-  
noletan egon diren Barne ministro  
ezberdinak dira, tortura bultzat-  
zen dutenak, espertxe politika  
konkretu bat ezartzen dutenak,  
gerra zikina martxan jartzen dute-  
nak baitira, azken finean, AAMren  
ildoak definitzen dutenak. Gure  
funtzio nagusia baita errepre-  
sio horri aurre egitea.



## Laburrak

### Tolosako Musika Bandaren kontzertua, Berdura plazan

**TOLOSA** ● Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko du gaur, 19:00etatik aurrera, Berdura plazan. Egitarau anitza eta atsegina prestatu dutela kontzertu honetarako azaldu dute Bandako kideek. Enrike Arostegiren zuzendaritzapean *Camino de rosas* (Jose Franco), *Los esclavos felices* (J.C. Arriaga), *Danza Hungara n.6* (Johann Brahms), *Cabaret* (John Kander) eta *La bruja* (R. Chapi) izango dira entzungai.

### Ziklomotorrentzat IAT egiteko aukera

**TOLOSA** ● Eusko Jaurilaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak, ziklomotor eta lau gurpileko ziklo arinentzat, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egiteko estazio mugikor batzuk jarri ditu EAeko hainbat herrietan, eta horietako bat da Tolosa. Hilaren 28, 29 eta 30ean, 10:00etatik 14:30era egongo da estazio mugikorra Ferialekuan. Kontuan izanik azterketa bat egiten 15 bat minutu behar dituztela, 20-24 ibilgailu aztertuko dituzte batez beste egunean. Horregatik, aurrez ordua hartu beharko da 943 675858 zenbakian. Azterketa egiteko 22 euro ordaindu behar da.

### 'Persepolis' eta 'Oro negro' filma gaur Leidor aretoan

**TOLOSA** ● Naturaldiaren baitan, bi film izango dira gaur ikusgai Leidor aretoan. *Persepolis* 17:00etan izango da, eta 20:00etan eta 22:30ean, berriz, *Oro negro* filma emango dute.

## Hastear da Hitza Pilota Txapelketa

**Pilota** » Datorren astean hasiko da; Herriarteko Pilota Txapelketan eskualdeko sei taldek hartuko dute parte.

### ERREDAKZIOA

Datorren astean hasiko dira Hitza Pilota Txapelketako partidak. Hain zuzen ere, asteartean, hilaren 22an Bidanien jokatuiko dituzte partidak kadete mailako pilotariak.

Bestalde, Herriarteko Pilota Txapelketa asteburu honetan bertan hasiko da, eta eskualdeko pilotari ugari hartuko dute parte. Denora, 26 talde lehiatuko dira, eta

horietatik, Amasa-Villabona, Asteasu, Bidegoian, Berastegi, Amezketa eta Lizartza dira eskualdekoak.

Asteazkenean egin zuten txapelketa honen zozketaren arabera, hilaren 27an izango dituzte lehen partidak eskualdeko taldeek: Amasa-Villabonak Berastegiren aurka, Amezketa Beasainen aurka, Aretxabaleta Asteasuren aurka, Lizartza Oiarzunen aurka eta Bidegoian Eskoriatzaren aurka.

### Iker Ugarteren debuta

Iker Ugarte pilotariak laster Frontis enpresarekin egingo du debuta. Lazkaotarra da, baina azken urteetan Aurrera-Saiaz taldean aritu izan da.

## Maiatzaren 1ean egingo dute txekor jatea

**Baliarrain** » Txartelak dagoeneko salgai daude Zartagin; lore azoka ere izango da egun horretan, bazkariaren aurretik.

### ERREDAKZIOA

Maiatzaren 1erako txekor jatea antolatatu du Baliarraingo Jai Batzordeak. 14:00etan izango da bazkaria, baina aurretik, 12:00etatik aurrera, lore azoka egongo da

Aramako Urretbizkaia lore etxeren eskutik. Horretaz gain, erakusketa ere jarriko dute ikusgai, eskulan tailerren parte hartu duten baliarraindaren lanekin. Bazkari herrikoiaurreko gau osoan zehar erreko dute txekorra ohikoa den moduan.

Izena eman nahi dutenek sarreak eskuratu ahalko dituzte hilaren 27a baino lehen Zartagin, 25 euroren truke. Unean bertan ordaindu beharko da, eta behin erostia ezingo dira txartelak bueltatu.



Haur Eskolaren kudeaketaren inguruko protestaren une bat. ASIERIMAZ

## Asteartean erabakiko dute Haur Eskolaren kudeaketaren afera

**Ibarra** » 18:00etan hasiko den Udalbatzaren ohiko bilkuran hartuko dute erabakia. Bertaratzeko deia egin diete herritarrei.

### A. IMAZ

Ibarrako Haur Eskolaren afera apirilaren 22an, asteartean, erabaki daiteke Udalbatza osoaren ohiko bilkuran. Bertan Kontsorzioaren sartzeara edo ez erabakiko dute EA, EA, EB-Aralar eta PSE-EEren zinegotziek. Bilkura 18:00etan hasiko da Ibarrako udaletxean eta herriko hainbat elkarterek herritarrei bertara agertzeko deialdia luzatu diete. Ezker abertzaleak ere deialdi bera egin du.

Uzturpe Ikastolak bere aldetik

elkarretaratzea deitu du gaur 12:00etan Ibarrako plazan.

### Haur eskolaren afera

Udal Haur Eskolaz baldutzenetik, Uzturpe Ikastola arduratu da bere kudeaketaz. Orain Udalak Kontsorzioaren esku utzi dezake kudeaketa hori. Proiektu honen aurka 900 herritarren sinadurak bildu zituen Uzturpe Ikastolak.

Bilkuran hiru urtetik beherako Haur Eskolen kudeaketarako eta hauri zuzendutako asistentzia eta hezkuntza-arretarako, Haurren Eskolak Kontsorzioaren estatutuen, Eusko Jaurilaritzaren eta Ibarrako Udalaren arteko Lankidetzaz Hitzarmenaren eta Hitzarmenaren eranskinaren onarpena Kontsorzioaren sartzeko gaia eztabaidatuko dute.

**hazi**  
nahi duten  
pertsonentzat

### Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Ikastaro guztiak bi orduko hiru saiotan egingo dira, asteartean, asteazkenean eta ostagueretan, 19:00etatik 21:00etara.

**Donostialdea:** maiatzak 6, 7 eta 8  
Donostia: Lagañu Kultur Etxea

**Goierri:** maiatzak 6, 7 eta 8  
Ordizia: Barrena Kultur Etxea

**Tolosalde:** maiatzak 13, 14 eta 15  
Tolosa: Antonio M. Labaien Kultur Etxea

**Urola Garaia:** maiatzak 13, 14 eta 15  
Zumarraga: Zela Añu Kultur Etxea

**Oarsoalde:** maiatzak 20, 21 eta 22  
Errenteria: Reina Aretoa

**Urola Erdia:** maiatzak 20, 21 eta 22  
Azpeltia: Sindikatu Zaharretako Aretoa

**Buruntzaldea:** maiatzak 27, 28 eta 29  
Hernani: Bizen Kultur Etxea

**Urola Kosta:** maiatzak 27, 28 eta 29  
Zasute: Sanz Enea Kultur Etxea

**Bidasoa-Txingudi:** ekainak 3, 4 eta 5  
Irún: Anasía Kultur Zentroa

**Debabarrena:** ekainak 3, 4 eta 5  
Eibar: Perlesia Kultur Etxea

**Debagoiena:** ekainak 10, 11 eta 12  
Arantzaz: Kulturatz Kultur Etxea

**Donostialdea:** ekainak 10, 11 eta 12  
Donostia: Udal Liburutegiko Eskola Aretoa

### Izena emateko

Ikastaroak doan dira, eta izena emateko Baketik-ekin harremanetan jartzera baino ez duzu ondorengo bide hauetako erabil.

943 25 10 05 partehartu@baketik.org www.baketik.org

Parte hartzen pertsona eta gizarte moduan hazten gara



**G Gutunak****Ibarran demokrazia zero!**

2008ko otsailaren 25ean EAE-ANV eta EHAK alderdien ilegalizazioa gaitzesten zuen mozio bat aurkeztu zuen Ibarako EAE-ANV alderdiak.

Ohikoa den bezala, EAJ, EA eta IUk mozio alternatibo bat aurkeztu eta bozkatu zuten. Beste puntu batzuen artean honako puntu hau onartu zuten: «Indar eta adierazpen politiko orok du, guztiek baldintza berdinetan, Euskal Herriko erakunde guztietako bizitza politiko eta sozialean parte hartzeko eskubidea, bakoitzari hautesleek eskaini dioten ordezkartzaren arabera; eta berriro ere adierazi nahi dugu, azken hauteskundeetan lortutako ordezkartza horri zor zaion guztizko errespetuz eginen dugula».

Osoko bilkura hartan puntu zehatz hau beteko zenaren zalantza agertu zitzaion EAJ, EA eta IUren zinegotziei. Beraiek mozioan onartutakoa beteko zutela berretsi zigten.

2008ko apirilaren 1ean EAE-ANVren 2 zinegotzi Gobernu Batzordetik kanporatuak izan ziren PSOEn zinegotziaren eskariz eta gainontzeko alderdietako zinegotzian babesarekin.

Hau al da hauteskundeetan lortutako ordezkartzari zor zaion guztizko errespetua?

Legegintzaldi honen hasieran lanean hasteko eta akordioak helduko zirela esan ziguten eta horrela gure parte-hartzea bermatuko zutela.

Nola nahi duzue lanean hastea zuek bileretatik bidaltzen bagaituzue? Osoko bilkuretan parte hartzeko trabak jartzen badizkiguzue? Informazioa ezkututzen badiguzue?

Demokrata zaretela esango duzue eta ilegalizazioa Madrildik inposaturiko zerbait dela, baina azkeneko neurri hauekin garbi erakusten duzue apartheid politikoaren alde zaudetela, ilegalizazioaren alde zaudetela eta berau aprobeztatuko duzuela zuten proiektuak (ez herriarenak!) isilpean eta oposizioirik gabe aurrera atera ahal izateko.

**Hanot Karrera.** Ibarako ezker abertzalearen kidea.



Antton Izagirre eta Hektor Espin, Tolosako ezker abertzalearen hautetsiak, prentsaurrekoa eskaini zuten Voith-Gorostidiko auziaren inguruan. ASIER IMAZ

## Voith-Gorostidiko auzian ezker abertzaleak «erantzunkizun penalak eta politikoak» eskatuko ditu

**Tolosa** » Euskadiko Justizi Auzitegi Nagusiak ezker abertzalearen hautetsiek aurkeztutako eskaria tramitera onartu du.

ASIER IMAZ

Hektor Espinek eta Antton Izagirrek Tolosako ezker abertzalearen hautetsien izenean prentsaurrekoa eskaini zuten herenegun Voith-Gorostidiko auziaren inguruan. Lehenik, Euskadiko Justizi Auzitegi Nagusiak hirigintza plangintzaren onarpenaren aurkako demanda tramitera onartu duela jakinarazi zuten. Ondoren, hautetsi independentistek demanda zergati aurkeztu zuten argitu zuten.

Hektor Espinek proiektuaren «kautezko etendura» eskatu zuten, Udalaren jokaera salatu zuten heinean; «gure helburua ez da lanak atzeratzea. Hasieratik

Udalari azalpen bat eskatu diogu, gure datuetan oker dagoena zer den esan dezaten eskatu diogu, eta Udalaren erantzuna lanak azkartzea izan da».

### «Badakite ilegaltasun bat egiten ari direla»

Auzitegi Nagusiak tramitera onartu duen demandan agertzen diren hainbat ezaugarri Udalak hasieratik zekizkiela aipatu zuten Hektor Espinek: «Beraiek badakite ilegaltasun bat egiten ari direla. Ezin daite tekniko guztien kriterioaren aurka beraien kriterioa ezarri. Guk demandan aurkitzen diren arrazoiak publikoki, pertsonalki eta baita hirigintza batzordeetan ere azaldu dizkiegu, ezingo dute esan ez zekitenik».

Azkenik, Espinek prozesuaren amaieran «erantzunkizun penal eta politikoak» eskatuko dituztela jakinarazi zuten.

### «EAJ osoa leporaino bustita dago, ez alkatea bakarrik»

Antton Izagirrek auziaren inguruan Tolosako ezker abertzalearen hautetsien balorazio politikoak egin zuten, EAJ osoaren erantzunkizuna azzpimarratu: «Honen atzean nahasirik EAJ aurkitzen da. Lagun duten eraikuntza enpresa batek mahai gainean proiektu bat jarri die eta hauek plangintza hori onartu egin dute. Ez dago Tolosako Alkatea soilik leporaino bustita, EAJ-PNV osoa baizik».

Epaiketaren inguruan galdetuta, Izagirrek epaiaren inguruan bi desio plazaratu zituen: «Epaileek zintzotasunez jokatzeara espero

dugu, horretaz gain erabakia lehenbailehen hartzea espero dugu. Nahiz eta jakin horrelako prozesuek hiru edo lau urte irauten dutela».

### «Arrazoi nagusiak»

Epaitegian aurkeztutako demanda ere hizketagai zuten hautetsi independentistek. Demanda aurkeztearen zergaiti edo arrazoi nagusiak tramitera onartu den dokumentuan kokatu zituen Hektor Espinek. Ondoren, bertan agertzen diren puntu garrantzitsuenak azaldu zituen.

Lehen arrazoi bezala «lurzoru legearen gehieneko eraikigarritasuna gainditu izana» aipatu zuten Espinek. Honen arabera eta ezker abertzalearen esanetan, «legearen arabera 47.713,5 m<sup>2</sup> egongo lirake etxebizitzak eraikitzeko. Udalak eta Foru Aldundiak onartutako proposamenak 74.789 metro koadro aurkeztu zituen. Legeak Voith-Gorostidi bezalako eremuetan 2,3 metro koadroko indizea erabili behar dela dio eta euren 3,6 m<sup>2</sup>koa erabili dute. Argi dago nabarmen legez kanpo dagoela kalkulu hau».

Bigarren arrazoi bezala ekipamendu falta aipatu zuten Espinek. «Antolakuntza honek ez du nahikoa ekipamendu aurkeztu. 753 etxebizitza egin nahi baldin badira, 2.600 biztanle berri kontutan hartu behar dira. Hau da, herri txiki batetaz ariko ginateke hizketan. Oraingo proposamenen ekipamenduetarako 400 m<sup>2</sup>ko lokala bakarrik aurkeztu da, behe solairuetan kokatua. Une honetan

hiri lurzoruetarako legea onartu gabe aurkitzen da, baina egiten ari diren zirriborroak lur urbanizagarriaren antzeko baldintzak aurreikusten ditu. Honen arabera, 16.478 m<sup>2</sup> beharko lirake ekipamenduetarako. 400 m<sup>2</sup>ko aurreikuspena ikusipuntu guztietatik ulertezina da».

Demanda aurkezteko Hektor Espinek aipatu zuten hirugarren arrazoi nagusia, «sistema lokaletara zuzendutako gune libreerik ez egotea» izan zen. «Kasu honetan ez du metro karratu bakar bat ere aurkeztu proposamenak. Legearen arabera, hiri lurzoruetan sistema generalizatuz gain eremu libreko sistema lokalak egon behar dira. Urbanizagarria balitz Voith-Gorostidi eremua, 15.603 m<sup>2</sup> beharko lirake sistema lokaletarako».

Hautetsi independentistek Euskadiko justizi auzitegi nagusian aurkeztutako demandan puntu gehiago aurkitzen baldin badira ere, «zarata legearen urraketa» besteak beste, Hektor Espinek «Larramendi kaleko lur azpiratzea» azzpimarratu zuten. Proiektuaren arabera, Larramendi kalean errepidea barneratu egiten da. «Tekniko guztiek hau astakeria bat dela esan dute, bai Udal teknikariek eta baita foru teknikariek ere», esan zuten Espinek.

### Udalak baloraziorik ez

Tolosako Udalak bere aldetik gaitzesten duen inguruan ez duela baloraziorik egingo azaldu du, «epaitegiek erabaki beharreko gauza bat delako».



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Bihar egingen den Herri Krosaren XXX. edizioan logoa estreinatuko dute

**Krosa** » Aurten beteranok lau buelta egin beharko dituzte, hau da, 12 kilometro, lehen egiten zituzten 3 itzulien ordez.

## NAIARA GARZIA

Goizeko 10:15ean hasiko da bihar egingen duten XXX. Herri Krosa, ordu horretan benjaminen txanda izanen baita. Kategoria bakoitzak urtero bezala, bere ordutegia du, eta benjaminen ondoren, alebinak eta infantilak aterako dira 10:30ean, kadeteak eta juniorrak 11:00etan eta seniorrak 11:30ean.

## Ibilbidea

Aurten aldaketa txiki bat sartu dute beteranoen ibilbideari dagokionez. Kros-batzordetik azaldu dutenez, «beteranok orain arte 3 buelta egiten zituzten, baina aurten 4 egingen dituzte».

Benjaminak, urtero bezala, eskolako buelta egingen dute, 800 metrotakoa: plazatik abiatu, eskolataraino joan eta Atekabeltzetik bueltan itzuli. Alebinek eta infantilek buelta handia egingen dute, fabrikatik barrena, Olaberria pasatu eta Manuel Lasartetik plazara, hau



Kadeteetan, neskek buelta bakarra egingen dute (2.500 metro), mutilek, aldiz, 2 egingen dituzte (5 kilometro). I. A.

da, 2.500 metro. Kadeteetan, neskek buelta bat egingen dute (2.500 metro) eta mutilek bi (5.000 metro).

## Izena emateko modu berria

Aurrerako kros-batzordetik azaldu dutenez, «orain arte izena emateko ordua goizean bertan irekitzen zen Aurreran, baina jende

asko pilatzen zen eta hori arintzeko aurten internet bidez ere izena emateko aukera jarri dugu [www.herrikrosa.com](http://www.herrikrosa.com) webgunean. Gainera, horrela egingez gero merkeagoa da».

Halere, egunean bertan izena eman nahi dutenek, beti bezala aukera hori ere izanen dute, Aurrera elkartearen egoitzan.

Bazkide ez direnek 8 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkideek, 5 euro.

## Logo berria

Herri krosak 30 urte bete dituzte, logoa aldatzea erabaki zuten eta hori dela-eta herrian ikaragarriko arrakasta izan zuen lehiaketa bat antolatu zuten. «700 lagun-

dik gora parte hartu zuten. Lehiaketa moduko bat egingenuen, nahi zuenak parte har zezakeela esanez eta aukeratutako marratzkia baika misetetan bai karteletetan aterako zela azalduz». Aurten, beraz, lehiaketa honen ondorioz, kamisetak berriak egin dituzte eta karteletan ere Aitor Zabaleta irabazlearen marratzkia jarri dute. Gainera, «parte hartu zuen jendeari esker errak emateko» erakusketa moduko bat egingen dute bihar lehiaketan aurkeztu ziren marratzki guztiekin, plazan bertan.

## Sariak

Aurten sariak banatzeko herriko kirol munduko jendea topatzeko zailtasunak izan dituzte kros-batzordekoek. «Oinatz, Abel eta hauekin saiatu gara, baina justu biak beste zerbait daukate egun horretan. Azkenean alkateak sariak emanen ditu eta batzordeko lehendakari ordea ere joanen da, baita Aurrerako beste batzorderen bateko ordezkariaren batera».

Krosa amaitu ondoren, 12:00 aldera luntxa egingen dute karrapean eta ondoren banatuko dituzte sariak. Sari banaketa amaitu eta gero bazkaria egingen dute Musunzarren.

## » ORDUTEGIA

- Benjaminak. 10:15.
- Alebinak-infantilak. 10:30.
- Kadeteak-juniorrak. 11:00.
- Seniorrak-beteranoak. 11:30.



## 'Behin batean bazen liburuzain bat...'

**LEITZA** » Ostegun iluntzean herriko liburutegian haurrek *Liburuzaina, estu eta larri* txotxongilo emanaldia ikusteko aukera izan zuten. 40 ume inguru bildu ziren bertan, baita zenbaiten gurasoak ere. Emanaldiak 50

minutu iraun zituen eta bitarte horretan umeek Pindelbum andereñoaren istorioa ikusteko aukera izan zuten. Txotxongilo taldea ekartzeko ekimena Jose Luis Uharte liburutegiko arduradunarena izan zen. N.G.

## Leitzako Kultur Taldearen logotipoa aukeratzeko lehiaketa

**Leitza** » Lanak emateko epea apirilaren 30ean amaituko da, eta Maimur eta Astiz liburudendetan utzi daitezke.

## N. GARZIA

Leitzako Kultur Taldeak logotipo edo marka lehiaketa antolatu du. Ondorioz, lehiaketan parte hartzen duten guztien artean aukeratzeko irudia iragarkietan, karteletan eta horrelakoetan erabiliko dute Kultur Taldearen irudi bezala.

## Lanen ezaugarriak

Lanak koloretan nahiz zuri-beltzean aurkeztu daitezke, eta edozein material edo teknika erabili ahaliko dira. Paperean aurkeztuko dira, DIN A4 formatuan, edo CDan, ahal izanez gero, jpg formatuan. Aukeratutako irudia Leitzako Kultur Taldea testuarekin batera azalduko da, edota sigla hauekin: ALKE.

Parte-hartzaileek lanak herriko

liburudendetan utziko dituzte, hau da, Maimurren edo Astizen, eta horrelako lehiaketetan ohikoa den bezala, gutunazal batean entregatu beharko dituzte. Izen-abizenak beste gutunazal batean sartu beharko dira, eta bi gutunazalak batera aurkeztu.

Apirilaren 30ean bukatzen da lanak aurkezteko epea eta irabazleak ondorengo saria lortuko du: 50 euro eta 2 laguntzako afaria.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Garbitzailea.** Garbitzailea behar da Orendainen. Deitu 19:30etik aurrera. 943 65 04 91.

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi-logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Telefono zenbakia: 665 70 86 35.



15°  
8°

GOIZA	ESTALIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	16°
HOTZENA	8°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzodon@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Villabona.** Bertso afaria Iker Zubeldia eta Andoni Egañarekin Amasako Iturri goxo jatetxean 21:00etan.
- **Villabona.** Oria merkatari elkar-teak antolatutako moda desfilea Gurea aretoan 19:30ean. Herriko era guztietako 22 denda partaide, zozketak, luntxa...
- **Tolosa.** Dantzari Txiki Eguna 7 herrialdeko taldeekin: 11:30ean kalejira Plaza Zaharretik, 12:45ean saioa Plaza Berrian, 17:00etan emanaldia plaza Berrian, 20:00etan trikopoteoa Plaza Zaharretik; 21:00etan afaria Zerkau-sian eta erromeria Landatarrekin.
- **Berastegi.** Basurde elkar-teak XVI. Ibilaldi Neurtua antolatuta du maiatzaren 4rako, 07:00etan abiatuta, inguruko mendietan. Izen-ematea, Zelai tabernan, 630 806080an, [basurde@komunikazioa.org](mailto:basurde@komunikazioa.org) helbidean edo irteeran. Sei ordu t,erditik 8 ordua irauten du.

### Musika

- **Tolosa.** Nova eta Handicraft musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.
- **Tolosa.** Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko du Berdura plazan 19:30ean: rock, zazueta, opera eta film doinuak.

### Antzerkia

- **Zizurkil.** Trapu Zaharrak konpainiak *Visa Vis* antzezlanaren eskainiko du 22:30ean Zizurkil goiko plazan.

### Zinema

- **Villabona.** Helduentzako *Juno* filma emango dute Gurean, 22:30ean, hilaren 20an 19:30ean eta hilaren 21ean 21:30ean. Haur-erentzako, *Las crónicas de Spiderwick* filma bihar 17:00etan.
- **Tolosa.** Naturaldiaren barruan, *Oro negro* dokumentala emango dute Leidor aretoan 20:00etan eta 22:30ean. Proiektzioa bereizmen handiko digitaletan. Estreinaldia Gipuzkoan.
- **Tolosa.** *Persepolis* filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Morant, r. Zabalarreta, 1. 943 673649.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

# Sentimenduen mundura bidiaia



Poesia Errezitaldiaren une bat, atzo Leidor aretoan. E.EZBIZA

**Kultura** » Galtzaundik antolatuta, Poesia Errezitaldiaren laugarren edizioa izan zen atzo arratsaldean Leidorren.

### ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak, Tolosako Udalaren laguntzarekin, antolatuta, Poesia Errezitaldiaren laugarren edizioaz gozatzeko aukera izan zen atzo arratsaldean Leidor aretoan.

Musika, irudiak eta dantza uzartuz aurkeztu zituzten jenduraren poesiak Tolosako Hirukide-Eskolapioak ikastetxeko, Las Korain Ikastolako eta Orixe Institutuko ikasleek eta Baionako Bernat Etxepare Lizeoko ikasleek. Eta, noski, guztiak beraiek sortuak ziren. Atzoko saioa behar bezala irreteteko, ordea, lan handia egin beharra izan dute aurretik ikastetxetako ikasleek zein irakasleek.

### Liburuan eta bideoan

Ekitaldiaren ostean mokadutxo hartu zuten parte-hartzaile guztiek elkarrekin, «anaitasun lokarriak eraikitzen joan daitezten eta poesiak eta euskarak elkartzen gaituela jabetzen joan daitezten», azaldu zuten antolatzaleek. Horretaz gain, egindako lana nolabait saritzearren, MP4 eta USB ak zozketatu zituzten guztien artean.

Bestalde, ikastetxe guztietako gazteen olerkiak liburuxka batean argitaratuko dituzte jende artean banatzeko eta parte hartu duten ikastetxeetara bidaltzeko. Hone-taz gain, liburutegietara, Kultur Etxeetara, udal etxeetara ere ale batzuk bidaliko dituzte. Bideoa eskatzeko aukera ere izango da emanaldia grabatu egin baitzuten.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Belen Romero (Abartzisketa).**  
Gaur 9 urte. Muxu handi bat guraso eta batez ere anai Julenen partetik.



### Urte askoan!

**Lande Uharte (Irura).**  
2. urtebetzetan aitona, amona eta osabaren partetik zorionak. Ke tio!

urtebetzetak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

**zeu**  
ileapaindegia  
ileapaindegia berritua

har ezazu zure txanda  
**943 671 427**

santa klara 8. Tolosa